

Jasangarritasunari buruzko txostena

2025ko urtariletik abendura



BIOSPHERE



GLOBAL
DESTINATION
SUSTAINABILITY
MOVEMENT

Bilbao Convention Bureau

Aurkibidea

Sarrera	4
Bazkideen partaidetza	6
GDS - Index	8
Egindako ekintzak	10
GJHeikin bat egitea	14
KPIen neurketa	16

Dokumentu hau Bilbao Convention Bureauko lantalde osoaren lankidetzari esker prestatu da, eta lantalde osoak izan du haren berri. Horiek horrela, zuzendariak dokumentu hau onartzen eta sinatzen du.

Kepa Olabarrieta




Sarrera

Dokumentu honek Bilbao Convention Bureau (BiCB) eta enpresa bazkideek 2025an jasangarritasunaren arloan izandako bilakaera jasotzen du, betiere, oinarri hartuta BiCBren 2021-2027 aldirako Jasangarritasun Estrategia eta 2021-2027 Ekintza Plana.

2025. urtean zehar MICE merkatua egonkortu egin da pandemiaren ostean. Horri esker, jasangarritasun-arloko ekimen eta proiektu berriak garatu ahal izan dira.

2025an, ingurumen-jasangarritasuna hobetzen jarraitzeaz gain, gizarte-jasangarritasunean aurrera egin da. Horretarako, Bilboko bileren eta kongresuen eragin positiboaren eta legatuaren inguruko proiektuak gauzatu dira.



Bazkide guztiek parte hartzea

Gure lan-batzorde iraunkorrak (#BilbaoArimaBerdea; bertan parte hartzen dute Bilbao Convention Bureauko enpresa bazkideetako batzuek eta hiriko ekosistemaren eragile garrantzitsuek), jasangarritasunaren alorrean lanean eta esperientziak, zailtasunak eta jardunbide egokiak partekatzen jarraitu du eta horretarako prestakuntzak, noizean behingo bilerak eta #ArimaBerdea LinkedIn plataformako taldea baliatu dira.

Talde horretan hotelak, egoitzak eta agentziak daude, baina baita toki-elkarteak, unibertsitateak eta udaletxeko kideak ere.


Talde hori ezin hobea da BiCBk jasangarritasunean egiten duen lana osatzeko eta partekatzeko.




GDS - Index

Aldi berean, laugarren urtez jarraian [Bilbok GDS-Index](#) nazioarteko sailkapenean parte hartzea kudeatu da. Sailkapen horretan, hiriek MICE destino gisa duten jasangarritasuna neurtzen da <https://www.gds.earth/destination/Bilbao/2022/> ingurumeneko, gizarteko eta ekonomiako adierazleetan oinarrituz.


Bilbok 21.postua lortu zuen, aurreko urteko 14.postuaren aurrean. Antzeko puntuazioarekin (100etik puntu bat baino gutxiagoko aldaketa), beste hiriek jasangarritasunean egindako aurrerapena nabarmentzen da, baita horretan aktiboki lan egiten jarraitzeko beharra ere.



GDS-INDEXen emaitzak



Bilbo, GDS 2025ko hirien batez bestekoarekin konparatuta



Egindako ekintzak

Bilbao Convention Bureauk sustatu dituen ekimen batzuen bitartez, gizarte-enpresek eta destinoak tresna eta baliabide gehiago eskuratu dituzte MICE destino jasangarriagoa izateko.

- **Karbono-aztarnaren kalkulua** (9.4A ekintza)

MICE ekimenek sortzen duten karbono-aztarna kalkulatzearen helburu anbiziotsuan oinarrituz, kongresuetako parte-hartzaileen garraioko karbono-aztarnaren datuak bildu dira inkestean bitartez.

Horretaz gain, BiCBren bulegoaren karbono-aztarna neurtu da [Ihoberen metodologian oinarrituz eta jarduerak](#) CO2 isuriekina sortzen duen inpaktua ere neurtu da.

Gure “Ekidin diren CO2 isuriak” adierazlearekin bat etorritik eta Bilboko Udalak klima-neutraltasuna lortzeko duen konpromisoarekin, espero da aurrerapausoak ematen jarraitzea eta bulegoaren aztarna murriztea eta konpentsatzea. **(Klimarako ekintza-plana)**

- **Digitalizazioa eta etengabeko hobekuntza-prozesua** (8.1 ekintza)

Bilbao Convention Bureau hobetzeko prozesuari eusten zaio, eta webgunea etengabe eguneratzen dela bermatzen da, baliabide jasangarrien eta jardunbide egokien arloko azken berrikuntzekin. Gainera, etengabeko argitalpena egiten da #ArimaBerdea LinkedIn taldean, jardunbide egokiak zabaltzeko eta horien eragina handitzeko.

Aldi berean, ekimen eta enpresa berriak txertatzen dira tresna jasangarrien portafolioan, ekitaldi-erakundeentzat eskuragarri dauden aukerak zabalduz. **(Klimarako ekintza-plana)**

- **Egiaztagiria** (3.2 ekintza)

Bilbao Convention Bureauk dirulaguntzen programarekin jarraitzen du, hotelek, egoitzek eta agentzia bazkideek, BiCBrekin batera, BIOSPHERE ziurtagiria eskura dezaten.

Ziurtagiri honek Garapen Jasangarriko 17 Helburuetan jartzen du arreta, eta turismo-sektoreko erakundeentzat da espezifiko. BiCBz gain, 3 bazkide ziurtatuak ditugu dagoeneko, eta 9 prozesuan; 2026ra begira ziurtagiria lortzeko bidea hasi nahi duten beste 9 enpresak gora egingo dutela aurreikusi da. **(Klimarako ekintza-plana)**

- **Eragin positiboa eta legatua** (8.1 ekintza)

Ahalegina egin da tresna jasangarrien portfolio bat sortzeko, ekitaldiak antolatzen dituzten erakundeek hiriko elkarte gakoan ikuspegia izan dezaten eta aukera izan dezaten baita ere hirian eragin positiboa sortzeko eta biztanleentzako legatua uzteko ekintzak garatzeko.

Horrez gain, Bilbao Convention Bureauk bat egin du Eragina Neurtzen Ikasteko Komunitatearekin, **ESADEk eta BBK- Kunak** antolatutakoa, hain zuzen ere, erakundeari gaikuntza emateko Bureauk gauzatzen eta sustatzen dituen eraginezko ekintzak monitorizatzeko eta neurtzeko. 2025an, Kunaren ikaskuntza-komunitateko prestakuntzak ere egin ziren. **(Klimarako ekintza-plana)**

- **Elikagaien hondakinak murriztea** (6.1 eta 6.2 ekintza)

Oreka Circular Economy-ren eskutik, "Elikagaiak Orekan" ekimenaren lehen urratsak eman dira. Ekimen hau Bilboko egoitza nagusietan programa pilotuak egitean oinarritzen da, elikagaiak alferrik galtzeari aurre egiteko.

Egoitzaren, cateringaren eta ekitaldiaren gizarte- eta ingurumen-erantzukizuna hobetzeko aukera bat da, jangelei eta egoitzei elikagai-soberakinak kudeatu eta ondoren emanaz. **(Klimarako ekintza-plana)**

- **Adierazpena: "2030 Agenda Kontratu Sozial baterako"** (8.1B ekintza)

2021ean, Euskadi 2030 Agenda Foroa sortu zen agente anitzeko eta erakundearteko gobernantza-eremu gisa, eta 2022ko irailean, Nazio Batuek erabaki zuten 2030erako Tokiko Koalizioaren Idazkaritzaren egoitza orokorra Euskadin kokatzea, zehazki, Bilbon.

2025an, Euskadi 2030 Agenda Foroak urratsak ematen jarraitu du GJHen aldeko Euskal Aliantza eratzeko "Euskadi 2030 Agenda Kontratu Sozial baterako" adierazpenaren bidez. Adierazpen horrek 2030 Agendaren inguruko konpromiso eta inplikazio batzuk jasotzen ditu. Bilbao Convention Bureau eta EAEko beste 50 elkarte atxiki egin dira Agenda 2030ekin duten konpromisoan aurrera egiten jarraitzeko. **(Klimarako ekintza-plana)**

- **Prestakuntzak** (1.4 ekintza)

Nabarmendu behar da BiCBk etengabeko prestakuntza ematen diela langileei barne-mailan eta, bestalde, prestakuntza irekiak eskaintzen dizkie enpresa bazkideei online plataformen bidez, hala nola Anfitrioiak eta aurrez aurreko prestakuntza Bilbon ingurumen- eta gizarte-jasangarritasunean.




GJHekin bat egitea

Erabaki guztiak une oro jasangarritasun-estrategian definitutako GJHekin lerrokatzen saiatuz hartu dira.

Gainera, Bilbao Convention Bureau Glasgowko Adierazpena eta GJHen Aldeko Euskal Aliantzara atxiki da.

- Karbono-aztarna kalkulatzeko



- Etxekoak ez diren hondakinen gaikako bilketa eskariaren arabera



- Askotariko prestakuntzak



(Agentzietarako jasangarritasun-politika, elikadura jasangarria, materialak berrerabiltzea eta ekonomia zirkularra)

- Elikagaien eta materialen dohaintzak



- Eragin positiboko eta legatuari lotutako askotariko ekintzak



- Webgunea eguneratzea





KPlen neurketa

Ingurumeneko KPlak

• Karbono-aztarna (9.4A ekintza) (I.A.1.1)


Bilboko Udalak klima-neutraltasuna eskuratzeko duen konpromisoarekin bat etorriz, BiCBn gure jardueraren hurrengo segmentuetan karbono-aztarna neurtzen eta konpentsatzen jarraitzen dugu:

- BiCBren bulegoko KA 2025an
1., 2. eta 3. irismenen arabera kalkulatu da. **8,43 t_{eq} CO₂**
- Famtripetako KA
Garraioaren eta ostatuaren isuriak kontuan hartu dira **- t_{eq} CO₂**

(Klimarako ekintza-plana)


• Kongresuetan parte hartzen dutenen mugikortasuna (1.5 ekintza)(I.A.5)

Kongresuetan parte hartu zuten % 93,3 garraio publikoan edo oinez joan ziren. **(Klimarako ekintza-plana)**




• Ingurumen-jasangarritasuna, kongresuak antolatzen dituztenen arabera

Antolatzaileei egindako inkesta, Bilboko MICE segmentuaren jasangarritasunarekiko konpromisoari buruz:



(Klimarako ekintza-plana) (1.3a ekintza) (I.A.6)

Jasangarritasuneko ziurtagiriek/politikek destino bat aukeratzeko edo hornitzaileak kontratatzeke orduan duten garrantziari buruz antolatzaileei egindako inkesta:



(2 ekintza) (I.A.7)

KPI sozialak

• Prestakuntza

2025an, BiCBk 41 pertsonari eman zien prestakuntza, BiCBko langileentzat, enpresa bazkideentzat eta Bilboko MICE ekosistemarentzat antolatutako jardunaldien bidez. **(I.S.1.1) (8.1 Ekintza) (DEI)**

• Irisgarritasuna

Bilbon antolatutako kongresuetako parte-hartzaileek 5 puntutik 4,6 eman zizkioten hirian irisgarritasunari dagokionez antzemandako konpromisoari. **(I.S.3) (8.1 h ekintza) (DEI)**


• Berdintasuna eta inklusioa

Kontratazioaren esparruko inklusioari eta berdintasunari dagokienez, kongresuen antolatzaileek balorazioetan puntu gutxi eman zuten aniztasun funtzionala duten nahiz gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen kontratazioa sustatzearekin lotuta. **(I.S.4) (A8.1 g ekintza) (DEI)**

Jasotako balorazioen ondorioz, inklusio-politikak dituzten erakundeek kontratazioa sustatzen ari da ekitaldiak antolatzen dituztenentzat prestatutako tresna jasangarrien portfolio baten bitartez. **(I.S.3) (8.1 h ekintza) (DEI)**

• Eragin positiboko ekintzak

Antolatzaile gehienek ekitaldiaren diseinuan eragin positiboa duten ekintzak proposatu zituzten, aurreko aldi baino ehuneko 70 gehiagoko emaitzarekin, gutxi gorabehera. **(I.S.5) (8.1 g ekintza) (DEI)**



KPI ekonomikoak

Bilboko kongresuetako parte-hartzaileen eta laguntzaileen zuzeneko gastuaren inpaktua 2025an 248mll € baino gehiagokoa izan zen.

Delegatu eta egun bakoitzeko batez besteko gastua 443,52 eurokoa izan zen.



<https://bilbaoconventionbureau.bilbao.eus/>



bicb@bilbaoturismo.bilbao.eus



+34 944 79 57 70

Bilbao Convention Bureau